

GOURMET

KULTURA

MUSIKA

SPORT

MARKET

ZINEMA

1-4
APIRILA
2026

bilbao
basque
FEST



AZKUNA
ZENTROA
ALHÖNDIGA
BILBAO

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

SALA BBK

bilbao.eus/basquefest





bilbao basque FEST

BERE
BENETAKO
ESENTZIA-
REKIN
ITZUL DA
EUSKAL
KULTURA
OSPATZERA
APIRILAREN
1ETIK 4RA

Bilbao basque FEST, Bilboko Udalak sus-
tatutako jaialdiak Aste Santuko **hiri-jaialdi**
handienetako bat izaten jarraitzen du;
hiriaren identitate kulturalaren proiektzioa
indartzen du eta esperientzia paregabea
eskaintzen die bisitariei zein bertakoei.

Jaialdia urtean bisitari gehien jasotzen
dituen garaietako batean ospatzen da,
apirilaren 1etik 4ra; programazio osoa
doakoa da eta hiriko gune esanguratsue-
netan garatzen da.

Hiria ezagutzeko aukera paregabea da eta,
gainera, antolatzen diren jarduerak eta
esperientziek Bilboko gune publikoak eta
jarduera ekonomikoa biziberritzen lagun-
tzen du jaiegun hauetan.





EDIZIO HONETAKO EKIMEN NABARME- NENAK

Bilbao basque FESTeko estreinaldi eta kontzertu eskusiboak: Korrontzi, Anne Etchegoyen, Anje Duhalde, Olaia Inziarte, Maren eta Neomak

Euskal Kulturaren Plaza
(Areatzako kaian), jaialdiaren epizentro berria: musika, show cooking saioak eta Herri Kirolak

Erromeriak Plaza Barrira itzuliko dira, euskal dantzen gune tradizionala, Aiko Taldearekin eta Patxi eta Konpaniarekin

Zuzeneko erakustaldiak (ordu erdiro) izango dira gune gastronomikoko protagonistak

Kale-animazioaren ikuskizun nagusietako bat Urbasa izango da, zirkoa eta txalaparta uztartzen dituen ikuskizuna, Arriaga Plazan

Paul Urkijoren «Gaua» euskarazko film luzea izango da Zinema sekzioko protagonista, BBK Salan

Publiko guztientzako planak: familientzako bateletako arrauna Pio Barojako pantalanetik abiatuta, eta parte hartzeko tailerrak
Euskal Kulturaren Plazan
(Areatzako kaian)



MUSIKA

KULTURA

ZINEMA

MARKET

GOURMET

SPORT

JAIALDIAREN ARDATZ NAGUSIAK, BLOKE TEMATIKOEN ARABERA

Bilbao basque FEST 2026 jaialdirako aurkeztu den programazioa **euskal kultura-ren ikuspegi zabal, garaikide eta parte-hartzailea** eskaintzeko moduan diseinatu da. Sei ardatz nagusiren bidez —musika, kultura, zinema, market, gourmet eta sport—, jaialdiak hiria topagune bihurtzen du; tradizioa eta sorkuntza garaikidea uztartuko dira, publiko guztientzat.

Ikuspegi horri esker, **hiriaren esperientzia oso bat** egituratu daiteke, eta bloke bakoitzak dimentsio osagarri bat eskainiko du.

BILBO KONTZERTU ETA IKUSKIZUN ESKLUSIBOEN AGERTOKI

Programazioak **erreferente historikoak, talentu berriak eta ekoizpen paregabeak** uztartzen ditu. Azkuna Zentroak eta ***Euskal Kulturaren Plazak*** —Areatzako kaian kokatutako gune berria— estreinaldiak, salbuespenezko bikoteak eta emakume-ahotsen kontzertuak hartuko dituzte, ikuspegi garaikideetatik begirada berriak eskaintzeko asmoz. Bestalde, Bilborock aretoan egingo diren emanal-

diek are gehiago sendotuko dute jaialdiaren eta publiko gazteen zein gaur egungo musika-sorkuntzaren arteko lotura. Eskaintza hau musika, dantza eta tradizioa uztartzen dituzten proposamenekin osatu da; horrela, kontakizun koherente bat eskainiko da, musika euskal identitate kulturalaren adierazpen bizia dela azpimarratuz.




AZKUNA ZENTROA: euskal musikaren tradizioaren eta ahots berrien arteko elkarrizketa

Estreinaldiak eta kontzertu paregabeak. Azkuna Zentroak hiru kontzertu errepikaezin hartuko ditu. Jaialdia **Anje Duhaldek** irekiko du, euskarazko musika modernoaren aitzindari eta ezinbesteko pertsonaia 1970eko hamarkadatik aurrera, rocka eta nazioarteko eraginak euskal musikagintzan txertatzeko orduan. **Niko Etxart** izango du ondoan, euskal musikaren beste izen handi bat.

Programazioa osatzeko, **Olaia Inziarte eta Maren** izango ditugu, beren proposamen sortzaileekin euskarazko musikaren panorama goitik behera aldatzen ari diren bi talentu berri.

Inziarte abeslari eta konpositore nafarrak —Musika Independentearen MIN sari eza-gunetan finalista izan zen 2023an— bere proiektu berriko kantuak aurkeztuko ditu estreinakoz: «Zura», tradizioa, elektronika eta pop-sentiberatasuna uztartzen dituen lana. Bestalde, Maren bilbotarrak —18 urterekin argitaratu zuen bere lehen diskoa, 2021ean— bere bigarren lana aurkeztuko du: «Qué Lástima». Apirilaren 2an, osteguna, **Bilboko Udal Txistulari Bandak** joko du, **Garazi Navas** soinu-jotzailearekin eta **Oinkari Dantza Taldearekin batera, Inziarteren «Zertzeladak»** kontzertuaren aurretik.





AZKUNA ZENTROA

Apirilak 1, asteazkena
19:00

Kontzertua: Anje Duhalde
(Niko Etxartekin batera)

Apirilak 2, osteguna
17:30

**Zertzeladak. Bilboko Udal Txistu-
lari Bandaren kontzertua, Garazi
Navas soinu-jotzailearekin eta
Oinkari Dantza Taldearekin
batera**

Apirilak 2, osteguna
19:00

Kontzertua: Olaia Inziarte

Apirilak 3, ostirala
19:00

Kontzertua: Maren

BILBOROCK: euskarazko musika-sorkuntzaren begirada anitzak Gar, Mugan eta Bisairekin

BILBOROCK

Apirilak 2, osteguna

20:00

Gar

Apirilak 3, ostirala

20:00

Mugan

Apirilak 4, larunbata

20:00

Bisai

Bilborock **bilbao basque FEST** jaialdiko agertoki nagusietako bat izango da aurten ere, eta programazioak euskal musikaren eszena berrien eta gaur egungo soinu garaikideen alde apustu egin du.

Kartelak **Gar, Mugan eta Bisai** biltzen ditu, euskarazko musika-sorkuntza garaikidea-ren hiru begirada desberdin. Gar, Jon Garcia Zabala musikari durangarra buru duen proiektua, estiloen fusio bat da, eta zuzenekoaren energia, eta gaur egungo sentiberatasuna elkar lortzen ditu.

Bestalde, Bisai talde nafarrak —2025ean argitaratu zuten lehen diskoa, «Hemen naiz»— nortasun handiko proposamena eskaintzen du, eta soinu- eta ikusmen-hizkuntza berriak arakatzen ditu rockaren eta musika alternatiboaren esparruan.

Mugan zazpikote donostiarrak osatzen du programazioa. Zazpikotearen estiloa generoen arteko mugetan kokatzen da, folk eta pop-rock ukitu erakargarriak uztartzen ditu, eta euskal eszena gazteenaren izaera bilatzaile eta berritzailea islatzen du.

Kartel honekin, Bilborock are gehiago indartu da **bilbao basque FEST** jaialdian, talentu berrientzako erreferentziazko gune gisa.



EUSKAL KULTURAREN PLAZA: (AREATZAKO KAIAN)

Euskadiko
musika-identitatearen
ospakizuna

Areatzako kaian kokatuta dagoen gun e berri honek tradizioa, berrikuntza eta nazioarteko proiektzioa uztartuko dituen musika-programazioa proposatzen du. Areatzako kaian kokatutako agertoki honetan bilduko dira **Neomak**, **Korrontzi eta Anne Etchegoyen**, gaur egungo euskal musikaren aniztasuna eta bizitasuna islatzen dituzten hiru proposamen. Neoma taldeak begirada garaikidea ematen dio emakumezkoen ahots-tradizioari, euskal folklorea eta musika elektronikoa uztartuz. Korrontzi erreferente nagusietako bat da euskal folkaren berrikuntzan, trikitixa abiapuntutzat hartuta. Eta Anne Etchegoyen euskal-frantsesak —Euskal Herriko ahots ezagunenetako bat— tradizioa eta pop-sentiberatasuna uztartzen ditu, nazioarteko proiektio zabalarekin.



MUSIKA

EUSKAL KULTURAREN PLAZA (AREATZAKO KAIA)

Apirilak 2, osteguna
21:00

Neomak

Apirilak 3, ostirala
21:00

Korrontzi (Mundua Dantzan)

Apirilak 4, larunbata
21:00

Anne Etchegoyen





Bilbao basque FEST ROCK CITY 2026: punketik soulera

Punk gordinenetik soul sofistikatuenara. Kafe Antzokia bilbao basque FEST Rock City 2026 jaialdiaren epizentro elektriko bihurtuko da; doako kontzertuak eskainiko dira, 22:00etatik aurrera. Programazioa **Chuleria, Joder!** taldearen punk rock bizia- rekin hasiko da, eta **Txarly Usher** abesla- riak —underground punkaren ordezkari nagusietakoa— 40 urteko ibilbidearen atzera begirako bidaia eskainiko du. **John Dealer & The Coconuts** taldearen energia handiko rock & rollak, Bellum taldearen kutsu klasikoak dituen post-punkak eta Mirotz gasteiztarren freskotasunak har- tuko dute lekukoa.

Sustrai estatubatuarrak ere landuko ditu jaialdiak, **The Rockabilly Pack** taldearen zuzeneko indartsuarekin eta **Crazy Jum- pers** taldearen swing dantzagarriarekin. Amaitzeko, musika beltzak hartuko du eszenatokia: **The Cherry Boppers & Patri- cia Reckless** taldearen jazz-funk doinuak eta **The Allnighters** taldearen maisutasun nekaezina, R&B estiloaren erreferenteak 1988tik.

KAFE ANTZOKIA

Apirilak 1, asteazkena

22:00

Chuleria, Joder!
Txarly Usher

Apirilak 2, osteguna

22:00.

John Dealer & The Coconuts
Bellum+ Mirotz

Apirilak 3, ostirala

22:00

The Rockabilly Pack
Crazy Jumpers

Apirilak 4, larunbata

22:00

The Cherry Boppers & Patricia Reckless
The Allnighters

HIRIA, ESPERIENTZIA KULTURAL PARTEKATUAREN GUNE

Kulturaren blokean, euskal kultura ikuspegi anitzetatik ezagutzeko aukera emango duen programazioa prestatu da; hiriko gune esanguratsuak aktibatu eta publikoaren parte-hartze zuzena sustatuko da.

Bilboko Anfitrioien eskutik ibilbide antzez-tuak egingo dira Zazpikaleetan barrena. Ibilbide horiek **Bilboren jatorri historikoa ezagutzeko aukera paregabea dira**, kontakizun garaikide batetik abiatuta, ondarea publiko guztiei hurbiltzeko asmoz. Plaza Barriko **erromeria** irekiek —Aiko Taldearen eta Dantza Piko taldearen emanaldiekin, Patxi eta Konpaniaren eskutik— espazio publikoa berreskuratuko dute belaunaldien arteko topagune gisa, eta euskal kulturaren izaera parte-hartzailea azpimarratuko dute.

Muntaketa eszeniko garaikideak ere izango ditu jaialdiak, hala nola Urbasa ikuskizuna, musika, perkusioa eta gorputz-adierazpena formatu berritzaile batean uztartzen dituen ikuskizuna.

Aurten ere bertan izango da euskal pertsonaiarik ezagunenetako bat: **Gargantua**. Ahoa zabal-zabalik eta mahai-tresnak prest dituela hartuko ditu haurrak, *Euskal Kulturaren Plazan (Areatzako kaia)*.

Programazioa **hiriko museo, zentro kultural eta aretoetako eskaintza zabalarekin** osatuko da: euskal artearen bildumak eta aldi baterako erakusketa interesgarriak egongo dira ikusgai Guggenheim Bilbao Museoan, Bilboko Arte Ederren Museoan, Itsasmuseumen, Azkuna Zentroan, Athletic Museoan, Eleiz Museoan, Arkeologia Museoan eta Rekalde Aretan, besteak beste.





ANFITRÍOIAK: bidaia antzeztua Bilboko historian zehar

Bilbao basque FEST jaialdiko jarduera arrakastatsuenetakoa da. **Hortzmuga Teatroak** ibilbide antzeztua eskainiko du, berriz ere, Bilboko Zazpikaleetan barrena; hiribilduaren historia esperientzia bizi eta parte-hartzaile bihurtzen da, eta publikoak pasadizoak eta gune esanguratsuak ezagutzeko aukera izango du, umorearen eta musikaren bidez. Jaialdiaren egun nagusi guztietan egingo dira saioak, 12:00etan, eta kaleak agertoki ibiltari bihurtuko dira. Bilboren iragana eta oraina modu atsegin eta sortzailean lotuko dira, publiko guztientzat.

ZAZPI KALEAK

ANFITRÍOIAK

Apirilak 2, osteguna _ 12:00

Apirilak 3, ostirala _ 12:00

Apirilak 4, larunbata _ 12:00

Erromeriak Plaza Barrian: folklorearen bihotza bilbao basque FESTen

PLAZA BARRIA

Apirilak 2, osteguna

18:30

Erromeria: Aiko Taldea

Apirilak 3, ostirala

18:30

Erromeria: «Dantza Piko», Patxi
eta Konpaniarekin

Apirilak 4, larunbata

18:30

Erromeria: Aiko Taldea

Edizio honetan ere **Plaza Barria** izango da **bilbao basque FEST** jaialdiko dantza herrikoia-aren epizentroa, eta musika tradizionalak parte-hartze kolektibora gonbidatuko gaitu gune ireki honetan. Erakustaldi estatikoek ez bezala, erromeria hauek benetako protagonista bihurtzen dute publikoa, gaur egungo eszenako proiektu dinamikoenetako bik gidatuta: «**Dantza Piko**» erromeria, **Patxi eta Konpaniarekin**, dantzarako gonbidapen zuzena. «Dantza Piko» metodoarekin agertokiaren eta plazaren arteko oztopo guztiak apurtzen dira, eta urrats tradizionalak ikasi eta dantzaz gozatu ahal izango du edonork, baita aurretiazko ezagutzarik ez badugu ere. Bigarren proposamena **Aiko Taldearena** da, musika-hezkuntzako profesionalek eta dantzariek osatutako taldea; erromeria natural eta espontaneoak proposatzen dute. Haien filosofia argia da: dantza komunikaziorako eta gozamenerako modu gisa ulertzea.



Zirkoa eta txalaparta Arriaga Plazan: Urbasa ikuskizuna

Bilbao basque FESTen aurtengo edizioan kale-animazioko proposamen nagusietako bat **Urbasa** ikuskizuna izango da. Proposamen artistiko hau **apirilaren 2an, ostegunean**, izango da, **19:30ean, Arriaga Plazan**. Hutsun taldeko txalapartarien eta Ortzi zirku-artistaren arteko elkarlanetik sortutako pieza hau erakustaldi hutsa baino askoz gehiago izango da: gure ingurunearen orekari buruzko soinu- eta ikusmen-arloko hausnarketa bat. Zentzumenen esperientzia zirraragarria.

Ikuskizunak Nafarroako Urbasa mendilerroa du abiapuntu; historikoki muga fisiko eta klimatikoa izan den espazioa, baina pertsonen eta naturaren arteko lotura ere izan dena. Eszenaratzeak paraje natural hori irudikatzen du: lainoek eta txalapartaren soinuak lasaitasun eta arnasketa organikoko giroa sortzen dute. Hala ere, bake hori bat-batean eteten da ezusteko bisitari bat agertzen denean.

«Txalaparta hutsa» kontzertu didaktikoa ere Arriaga Plazan izango da (osteguna 13:00etan) —euskal musika tradizionaleko instrumenturik ezagunenetakoa—, baita perkusio-tailerra ere (ostirala 13:00etan eta 18:00etan).



ARRIAGA PLAZA

Apirilak 2, osteguna

13:00

Txalaparta hutsa. Kontzertu didaktikoa

19:30

Urbasa ikuskizuna (Hutsun + Ortzi)

Apirilak 3, ostirala

13:00

Perkusio-tailerra

18:00

Perkusio-tailerra

Erraldoiak eta dantza tradizionalak Guggenheim Bilbao Museoaren zabalgunean

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOKO ZABALGUNEA

Apirilak 2, osteguna

12:00

Erraldoien kalejira Ondalan konpartsarekin (Ledesmara iritsi arte)

Apirilak 3, ostirala

12:00

Euskal dantza tradizionalen ikuskizuna Bizkaiko Dantzarien Biltzarrarekin

18:00

Euskal dantza tradizionalen ikuskizuna Bizkaiko Dantzarien Biltzarrarekin

Euskal folkloreaz gozatzeko agertoki paregabea, dantza tradizionalen ikusgarritasuna eta erraldoien handitasuna uztartzen dituen programazio batekin. **Bizkaiko Dantzarien Biltzarraren** parte-hartzeari esker, publikoak ibilbide koreografiko bat egin ahal izango du Euskadiko herrietan barrena, dantzen aberastasuna eta berezitasuna arkitektura-ingurune paregabean erakutsiko dituzten tokiko taldeen eskutik. Bestalde, **Ondalan** konpartsak kaleak musikaz eta mugimenduz beteko ditu, gaiten erritmoari jarraituz balsak dantzatuko dituzten erraldoi enblematikoekin. Pertsonaia historikoek—Alkatea, Txakolinaria, Marinela eta Sirgaria, besteak beste (hainbat tamainatako hama sei figura dira, eta euskal herri-kulturako tradizioz maitatuenetako batez gozatzeko gonbita egiten diete belaunaldi guztiei)—Deustuko auzoaren iraganari omenaldia egingo diete.



KULTURA

Gargantua haurren zain egongo da *Euskal Kulturaren Plazan* (Areatzako kaia)

Euskal Kulturaren Plazak (Areatzako kaia)
Bilboko haurrek gehien maite duten per-
sonaietako bat hartuko du: **Gargantua**.
**Txapela buruan eta mahai-tresnak prest
dituela, goizez eta arratsaldez** ongietorria
emango die haurrei, barruko txirristatik
irrist egiten duten bitartean primeran
pasatzeko aukera izan dezaten.

EUSKAL KULTURAREN PLAZA (AREATZAKO KAIA)

Apirilak 2, osteguna

Apirilak 3, ostirala

Apirilak 4, larunbata

Goizez 11:00 - 14:00

Arratsaldez 17:00 - 20:00



Erakusketen eskaintza zabala HIRIKO MUSEO ETA ARETOETAN

Bilbao basque FEST jaialdiaren eskaintza kulturala osatzeko, erakusketen programazio zabala antolatu da hiriko museo, areto eta zentro kulturaletan. **Bilboko Arte Ederren Museoak** euskal artearen bildumarik osatuena eskaintzen du. Honako artista hauen lanak daude bertan: Adolfo Guiard, Darío de Regoyos, Francisco Iturrino, Aurelio Arteta, Jorge Oteiza, Zuloaga eta Chillida, besteak beste.

Guggenheim Bilbao Museo ikonikoak «Lurraren arteak» erakusketa programatu du data hauetarako. Erakusketak ingurumenarekiko interesa duten 48 artistaren lanak biltzen ditu, askotariko teknikak eta diziplinak erabiltzen dituztenak. Parte hartzen duten euskal artisten artean Agustín Ibarrola, Mar de Dios, Asier Mendizabal eta José Luis Uribe ditugu, besteak beste.

Hiriaren ikur handienetako baten historia hobeto ezagutu nahi dutenentzat, **Athletic Museoak** bisita gidatuak eskaintzen ditu San Mames estadioan, baita jatorrizko

piezen bilduma eta talde historikoaren 900 bideo baino gehiago ere.

Itsasadarraren ondoan, **Itsasmuseumek** euskal industrializazioaren aztarna omentzen duen erakusketa bat eskaintzen du: «Ars ex Industria – Artea, euskal kultura eta ondare industrialaren isla». Obra Gonbidatuaren programan, Iñaki García Ergüin (Bilbo, 1934) artistaren Ondarroa dago ikusgai, kostaldeko herri horretako portuko etheen ikuspegi adierazkorra erakusten duen lana.

Bilboko espazio kultural esanguratsuenetako batek, **Rekalde Aretoak**, Ra Asensi bilbotarraren «[Barne] Lurra» erakusketa aurkeztu du Barriek zikloaren barruan.

Adierazpen artistiko erlijiosoetan interesa dutenentzat, **Eleiz Museoak** —XII. mendetik XXI. mendera bitarteko pieza esanguratsuak biltzen ditu— «Bizkaiaren espiritua» erakusketa programatu du, lurraldearen mende-aldaketaren garaiko (1870–1936) nortasun sozial eta erlijiosoaztertzen duena. Gainera, Euskadiko Artxi-bo Historikoak «Eraldaketa baten kronika (1900–1957)» aldi baterako erakusketa eskaintzen du.

Bestalde, **Euskararen Etxeak** gure hizkuntzaren historia sakonago ezagutzeko aukera ematen du bere bilduma iraunkorraren bidez. **Arkeologi Museoak**, berriz, lurraldeko historiaurreko ondarea irudikatzen duten 500 pieza baino gehiago biltzen ditu.

GOURMET: ZUZENEKO SHOW COOKING SAIOAK

Gastronomiak presentzia handia izango du aurtengo edizioan. Show cooking edo **zuzeneko erakustaldiak egingo dira ordu erdiro**, eta bertaratzen direnek sasoiko produktu batzuk ezagutzeko aukera izango dute. Jaialdiaren hiri-izaera dinamiko indartzen duen proposamena da.

EUSKAL KULTURAREN PLAZA (AREATZAKO KAIA)

Apirilak 2, osteguna

12:00 - 14:00

Show cooking saioak
zuzenean

18:00 - 20:00

Show cooking saioak
zuzenean

Apirilak 3, ostirala

12:00 - 14:00

Show cooking saioak
zuzenean

18:00 - 20:00

Show cooking saioak
zuzenean

Apirilak 4, larunbata

12:00 - 14:00

Show cooking saioak
zuzenean

18:00 - 20:00

Show cooking saioak
zuzenean



SPORT: HERRI-KIROLAK, IDENTITATEAREN ADIERAZPEN ETA IKUSKIZUN GARAIKIDEA

Sport blokea jaialdiko elementurik berezietako bat da, **herri-kirolak hirigunera hurbiltzen dituelako eta lurraldeko kulturaren eta identitatearen adierazpen bizi gisa** aurkezten dituelako. Gainera, egun hauetan hiria bisitatzen dutenek gehien baloratzen duten edukietako bat da, diziplina horiek ezagutzeko eta zuzenean goatzeko aukera paregabea. Erakustaldiak, erronkak, tailerrak eta lehiaketak antolatzen dira bertaratuek diziplina tradizionalak ezagutu ahal izateko: aizkolaritza, harri-jasotzea edo proba konbinatuak, publikoarentzat eskuragarriak eta erakargarriak diren formatuetan.

I bilbao basque FEST Saria: proba konbinatua bikote mistoekin

Areatzako kaia herri-kirolen erakusleaho nagusia izango da aurten ere, eta erakustaldiak eta lehiaketa ofizial bat uztartuko dira: **I bilbao basque FEST Saria**, apirilaren 4an, larunbatean, 18:30etan. Pentatloi mistoko erronka handia izango da, eta gizon-emakumez osaturiko bikoteak hainbat modalitatetako proba konbinatu zorrotz batean lehiatuko dira, jaialdiko lehen saria eskuratzeko asmoz. Beste herri-kirol batzuen erakustaldiak ere egingo dira: **gizonezkoen orga-jokoa, harri-jasotzea, altuerako egur-mozketa, enbor-mozketa eta sokatira, eta emakumezkoen fardo-altxatze eta -jaurtiketa eta aizkora bidezko mozketa.**

Sport eskaintza osatzeko, **herri-kirolen tailerrak eta euskal joko tradizionalen tailerrek antolatu dira familientzat.**

EUSKAL KULTURAREN PLAZA (AREATZAKO KAIA)

Apirilak 2, osteguna

11:00-13:00

Herri-kirol tailerrak familientzat

13:00-14:00

Herri-kirol mistoen
erakustaldia: Orga Jokoa
eta harri-jasotzea

17:00-19:00

Herri-kirol tailerrak familientzat

18:30-19:30

Gizonezkoen herri-kirol
erakustaldia: altuerako
egur-mozketa erronka,
harri-zulatzaileen erronka
eta publikoak parte
hartzeko aukera irekia

SPORT

Apirilak 3, ostirala

11:00-13:00

Herri-kirol tailerrak familientzat

13:00-14:00

Gizonezkoen herri-kirol erakustaldia: lehen mailako kirolarien egur-mozketa erronka (lan ezberdinak) eta Iparraldeko jokoan erronka (fardoak, ingudea...)

17:00-19:00

Herri-kirol tailerrak familientzat

18:30-19:30

Herri-kirolen erakustaldia: enbor-mozketa (trontza) erronka eta sokatira erronka, publikoak parte hartzeko aukera irekiarekin



SPORT



Apirilak 4, larunbata

11:00-13:00

Euskal joko tradizionalen tailerrak
familiarentzat

13:00-14:00

Emakumezkoen herri-kirol
erakustaldia: Fardo-altxatze eta
-jaurtiketa erronka eta aizkorazko
mozketa.

17:00-19:00

Euskal joko tradizionalen tailerrak
familiarentzat

18:30-19:30

Pentatloi mistoa: I bilbao basque
FEST Saria: proba konbinatua bikote
mistoekin

PIO BAROJA: familientzako bateletako arrauna itsasadarrean



Pio Barojako pantalanak publikoa protagonista bihurtzera gonbidatzen du, aisialdiko ikaskuntzarako berariaz diseinatu-tako **bateletako arraun jarduera tradizio-nal** batekin.

Begirale eta patroien azalpen teknikoak jaso ondoren, parte-hartzaileek alde zurreko entrenamendu bat egingo dute. Jarduera hori itsasadarreko ibilaldi batekin amaituko da, eta azken estropada zirrargarri batekin, kirol eta itsas kulturako esperientzia paregabe honetan eskuratu-tako trebetasunak erakutsi ahal izateko.

PIO BAROJA PANTALANA:

Apirilak 2, osteguna
Apirilak 3, ostirala
Apirilak 4, larunbata

Goizez: 11:30 -13:30
Arratsaldez: 16:30 -18:30

EUSKAL MITOLOGIA MURGILTZAILA

BBK Salan Gaua filma proiektatuko da, Paul Urkijo Alijo euskal zuzendariaren hiru-garren film luzea, gaur egungo zinema fantastikoko ahots nabarmenetako bat. Filma euskaraz izen dago eta 2025ean estreinatu zen, eta **historia, folklorea eta beldurra uztartzen ditu**, Euskal Herriko mitologian eta tradizioetan inspiratutako giro murgiltzaile batean

Zinema eta mitologia euskal gauean: Gaua

Filma XVII. mendean girotuta dago, sorgin-ehizaren garaian. Gauak Kattalinen ihesa irudikatzen du: gauerdian bere base-rria utzi eta basoan murgiltzen den neska gaztea, presentzia kezkagarriak eta antzinako kontakizunak nahasten direlarik. Emaizta **misterioz eta sinbolismoz beteriko esperientzia zinematografikoa** da. Besteak beste, Yune Nogueiras, Elena Irureta, Ane Gabarain eta Iñake Irastorza dira filmaren protagonistak, euskal ikus-entzunezko panoramako antzezle ezagunak.

Filmak ibilbide nabarmena egin du zinema-jaialdietan: mundu osora zabaldu zen Sitgeseko Jaialdian, eta zinema fantastikoko nazioarteko eta Estatuko hitzordu garrantzitsuetan parte hartu du.



Gainera, Urkijoren ibilbidea sendotu du, Errementari eta Irati lanen ondoren. Gauak eszenaratze zaindua, soinu-banda indartsua eta tokiko iruditeria mitologikoarekiko lotura estua uztartzen ditu, eta **tradizioa, beldurra eta askatasuna zentzumenen esperientzia paregabe batean** batzen diren gau zirraragarri batean murgiltzen du publikoa.

BBK SALA

GAUA

Apirilak 2, osteguna _ 19:00

Apirilak 3, ostirala _ 19:00

Apirilak 4, larunbata _ 19:00

Euskaraz, gaztelaniazko azpigituluekin

BENETAKO IZAERA EUSKALDUNA DUTEN EROSKETAK

Bilbao basque FEST esperientzia hiriko saltoki eta merkatu tradizionaletara ere hedatuko da. Horien artean, Erriberako Merkatu enblematikoa dugu, tokiko merkataritzaren erreferente historikoetako bat. **Gure Lurreko Merkatua** ere ezagutu ahal izango du publikoak, gure lurraldeko produktu onenen erakusleihoa, baita «Eskutartie» **Artisautza Azoka** ere; bertan, eskuz egindako kalitate handiko artisau-lanak erakusten dira: zeramika, larrua, zura eta bestelako sorkuntza bereziak. Natura zaleentzat, **igandeko merkatuak** lore freskoen aukera bizia eskaintzen du, hiri-giroari kolorea eta freskotasuna emanez.



GOURMET

KULTURA

MUSIKA

SPORT

MARKET

ZINEMA

1 ASTEAZKENA

19:00

KONTZERTUA
Anje Duhalde Niko Etxarten
kolaborazioarekin

AZKUNA
ZENTROA

22:00

KONTZERTUA
Bilbao basque FEST Rock City
Chulería, Joder!
Txarly Usher

KAFE
ANTZOKIA

GOURMET

KULTURA

MUSIKA

SPORT

MARKET

ZINEMA

2 OSTEguna

11:00 - 13:00

TAILERRAK: herri-kirolen
tailerrak familientzat

*EUSKAL
KULTURAREN
PLAZA
(AREATZAKO
KAIA)*

11:00 - 14:00

Gargantua

*EUSKAL
KULTURAREN
PLAZA
(AREATZAKO
KAIA)*

11:30 - 13:30

ARRAUNA
bateletan familientzat

*PIO
BAROJA
PANTALANA*

12:00

IBILBIDE ANTZEZTUA
«Anfitrionak»
Hortzmuga Teatroarekin

*ZAZPI-
KALEAK*

12:00

ERRALDOIEN KALEJIRA
Ondalan konpartsarekin

*GUGGENHEIM
ZABALGUNEA*

12:00 - 14:00

SHOW COOKING SAIOAK
Zuzeneko erakustaldiak

*EUSKAL
KULTURAREN
PLAZA
(AREATZAKO
KAIA)*

2 OSTEguna

13:00

**KONTZERTU DIDAKTIKOA
Txalaparta Hutsa**

**ARRIAGA
PLAZA**

13:00 - 14:00

**ERAKUSTALDIA: herri-kirol
mistoak: Orga Jokoa eta
harri-jasotzea**

**EUSKAL
KULTURAREN
PLAZA
(AREATZAKO
KAIA)**

16:30 - 18:30

**ARRAUNA
bateletan familientzat**

**PIO
BAROJA
PANTALANA**

17:00 - 19:00

**TAILERRAK: herri-kirolen
tailerrak familientzat**

**EUSKAL
KULTURAREN
PLAZA
(AREATZAKO
KAIA)**

17:00 - 20:00

Gargantua

**EUSKAL
KULTURAREN
PLAZA
(AREATZAKO
KAIA)**

17:30

**KONTZERTUA:
"ZERTZELADAK" Bilboko
Txistulari Banda, Garazi Navas
soinu-jotzailearekin eta Oinkari
Dantza Taldearekin**

**AZKUNA
ZENTROA**

18:00 - 20:00

**SHOW COOKING SAIOAK
Zuzeneko erakustaldiak**

**EUSKAL
KULTURAREN
PLAZA
(AREATZAKO
KAIA)**

2 OSTEGUNA

18:30

ERROMERIA
Aiko Taldearekin

PLAZA
BARRIA

18:30 - 19:30

ERAKUSTALDIA **Gizonezkoen
herri-kirolak: altuerako egur-
mozketa eta harri-zulatzaileen
erronka**

Publikoak parte hartzeko
aukera

*EUSKAL
KULTURAREN
PLAZA
(AREATZAKO
KAIA)*

19:00

KONTZERTUA
Olaia Inziarte

AZKUNA
ZENTROA

19:00

PROIEKZIOA
"Gaua"
Euskaraz, gaztelaniazko
azpituluekin

BBK
SALA

19:30

IKUSKIZUNA
"Urbasa": Hutsun + Ortzi

*EUSKAL
KULTURAREN
PLAZA
(AREATZAKO
KAIA)*

20:00

KONTZERTUA
Gar

BILBOROCK

2 OSTEGUNA

21:00

KONTZERTUA
Neomak

*EUSKAL
KULTURAREN
PLAZA
(AREATZAKO
KAIA)*

22:00

KONTZERTUA
Bilbao basque FEST Rock City
John Dealer & The Coconuts
Bellum + Mirotz

*KAFE
ANTZOKIA*



GOURMET

KULTURA

MUSIKA

SPORT

MARKET

ZINEMA

3 OSTIRALA

11:00 - 13:00

TAILERRAK: herri-kirolen
tailerrak familientzat

*EUSKAL
KULTURAREN
PLAZA
(AREATZAKO
KAIA)*

11:00 - 14:00

Gargantua

*EUSKAL
KULTURAREN
PLAZA
(AREATZAKO
KAIA)*

11:30 - 13:30

ARRAUNA
bateletan familientzat

*PIO
BAROJA
PANTALANA*

12:00

IBILBIDE ANTZEZTUA
«Anfitrionak»
Hortzmuga Teatroarekin

*ZAZPI-
KALEAK*

12:00

DANTZA TRADIZIONALEN
IKUSKIZUNA
Bizkaiko Dantzarien Biltzarra

*GUGGENHEIM
ZABALGUNEA*

12:00 - 14:00

SHOW COOKING SAIOAK
Zuzeneko erakustaldiak

*EUSKAL
KULTURAREN
PLAZA
(AREATZAKO
KAIA)*

3 OSTIRALA

13:00 - 14:00	ERAKUSTALDIA Lehen mailako kirolarien egur-mozketa erronka (lan ezberdinak) eta Iparraldeko jokoen erronka	<i>EUSKAL KULTURAREN PLAZA (AREATZAKO KAIA)</i>
13:00	TAILERRA Perkusioa	<i>ARRIAGA PLAZA</i>
16:30 - 18:30	ARRAUNA bateletan familientzat	<i>PIO BAROJA PANTALANA</i>
17:00 - 20:00	Gargantua	<i>EUSKAL KULTURAREN PLAZA (AREATZAKO KAIA)</i>
17:00 - 19:00	TAILERRAK: herri-kirolen tailerrak familientzat	<i>EUSKAL KULTURAREN PLAZA (AREATZAKO KAIA)</i>
18:00	TAILERRA Perkusioa	<i>ARRIAGA PLAZA</i>
18:00	IKUSKIZUNA Euskal dantza tradizionalak Bizkaiko Dantzarien Biltzarrarekin	<i>GUGGENHEIM ZABALGUNEA</i>

3 OSTIRALA

18:00 - 20:00

SHOW COOKING SAIOAK
Zuzeneko erakustaldiak

*EUSKAL
KULTURAREN
PLAZA
(AREATZAKO
KAIA)*

18:30

ERROMERIA
«Dantza Piko»
Patxi eta Konpaniarekin

*PLAZA
BARRIA*

18:30 - 19:30

ERAKUSTALDIA
**Herri-kirolak: Enbor-ebaketa
erronka (trontza) eta sokatira
erronka.** Publikoak parte
hartzeko aukera.

*EUSKAL
KULTURAREN
PLAZA
(AREATZAKO
KAIA)*

19:00

KONTZERTUA
Maren

*AZKUNA
ZENTROA*

19:00

PROIEKZIOA
«Gaua»
Euskaraz, gaztelaniazko
azpituluekin

*BBK
SALA*

3 OSTIRALA

20:00

KONTZERTUA
Mugan

BILBOROCK

21:00

KONTZERTUA
Korrontzi "Mundua Dantzan"

EUSKAL
KULTURAREN
PLAZA
(AREATZAKO
KAIA)

22:00

KONTZERTUA
Bilbao basque FEST Rock City
The Rockabilly Pack +
Crazy Jumpers

KAFE
ANTZOKIA



GOURMET

KULTURA

MUSIKA

SPORT

MARKET

ZINEMA

4 LARUNBATA

11:00 - 13:00

TAILERRAK: euskal joko
tradizionalak familientzat

*EUSKAL
KULTURAREN
PLAZA
(AREATZAKO
KAIA)*

11:00 - 14:00

Gargantua

*EUSKAL
KULTURAREN
PLAZA
(AREATZAKO
KAIA)*

11:30 - 13:30

ARRAUNA
bateletan familientzat

*PIO
BAROJA
PANTALANA*

12:00

IBILBIDE ANTZEZTUA
«Anfitrionak»
Hortzmuga Teatroarekin

*ZAZPI-
KALEAK*

12:00-14:00

SHOW COOKING SAIOAK
Zuzeneko erakustaldiak

*EUSKAL
KULTURAREN
PLAZA
(AREATZAKO
KAIA)*

4 IARUNBATA

13:00 - 14:00	ERAKUSTALDIA Emakumezkoen herri-kirolak: fardo-altxatze eta -jaurtiketa erronka eta aizkorazko ebaketa.	<i>EUSKAL KULTURAREN PLAZA (AREATZAKO KAIA)</i>
16:30 - 18:30	ARRAUNA bateletan familientzat	<i>PIO BAROJA PANTALANA</i>
17:00 - 19:00	TAILERRAK: euskal joko tradizionalak familientzat	<i>EUSKAL KULTURAREN PLAZA (AREATZAKO KAIA)</i>
17:00 - 20:00	Gargantua	<i>EUSKAL KULTURAREN PLAZA (AREATZAKO KAIA)</i>
18:00 - 20:00	SHOW COOKING SAIOAK Zuzeneko erakustaldiak	<i>EUSKAL KULTURAREN PLAZA (AREATZAKO KAIA)</i>
18:30	ERROMERIA Aiko Taldearekin	<i>PLAZA BARRIA</i>

4 IARUNBATA

18:30 - 19:30

**PENTATLOI MISTOA
I bilbao basque FEST Saria**

***EUSKAL
KULTURAREN
PLAZA
(AREATZAKO
KAIA)***

19:00

**PROIEKZIOA
"Gaua"**
Euskaraz, gaztelaniazko
azpituluekin

**BBK
SALA**

20:00

**KONTZERTUA
Bisai**

BILBOROCK

21:00

**KONTZERTUA
Anne Etchegoyen**

***EUSKAL
KULTURAREN
PLAZA
(AREATZAKO
KAIA)***

22:00

**KONTZERTUA
Bilbao basque FEST Rock City
The Cherry Boppers & Patricia
Reckless
The Allnighters**

**KAFE
ANTZOKIA**



bilbao basque FEST



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

SALA BBK

bilbao.eus/basquefest

